

ZENBAT BURU
Jon Peli Uriguen

ERREPORTAIA
Txakurrekin
desertuan

UDALETXETIK
N-634 errepideari
buruzko azterketa


BERBETAN
Susana Mujika,
Iparragirre sarietako
irabazlea

KIROLA
Mintxetako
Eskolarteko IV.
Kroseko emaitzak

BARRREN

1999ko urtarrilaren 15cr
V. urteet - 262. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



San Anton jaiak

"San Antonetan bero, negua gero"

ESISERRIK
ASKO

Jaiotza egin
dutenei
eta gure bezeroei,
Elgoibarko herriari
bizitasuria
emateagatik.

Gogoratu!
Zapatu
arratsaldeetan
irekita!!



BIRE

ELEKTRAGA1LUAK

UBITARTE PLAZA, 11
TEL. 943 74 14 87



ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN ESPEZIALIZATUAK



<http://www.tien21.es>



LEKUZ
ALDATU GARA

Haizearen lapurrak



JONPELI URIGUEN

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Horrela dio nire eskuetara heldu den txostenak. Zertaz ari naizen? Energia eolikoaz, noski, egun pil-pilean da goen gaia. Haizearen energiaren baliatuz elektrizitatea lartzea gaurko gaia ez den arren (XX. mende hasieran erabiltzen ziren haize errota elektrizitatea lortzeko, sare elektrikoaren garapen azkanak eta energia hori merkea izateak haizea erabiltzen zuten instalazioak alde batera utzi bazituzten ere), 1973ko energia krisiak eta energia berriztagarrien gaineko kontzientziazioak, energia eolikoaren erabilera indartzeko interesa gehitu zuen.

Aspaldidanik da ezaguna energia iturri buruzko eztabaida (nuklearra, eolikia, eguzki energia,...). Energia hondasun urria da eta, gainera, kutsadura dakar (kutsatzen ez duen energia bakarra sortzen ez dena da), eta baieztapen biak kontuan hartuz, energia baten edo bestearen alde egiteko, errentagarritasunaz gain, ingurugiroarekiko eragina ere kontuan hartu behar da.

Energia eolikoak beste energia iturri batzuekiko abantaila ugari dituela nabaria da (erregaien eraldaketan oinarritzen ez denez, ez dago gas kutsatzaile jaulkipenik, etengabe berriztatzen da eta agortezina da,...), baina ez da kaltegabekoa, ez da metatzen, horniduraren aldakortasuna jakina da, kutsadura estetikoa sortzen du,...

Euskal mendizaleen artean kezka sortu du energia eolikia garatzeko plangintzak. Pozik jaso da energia berriztagarrien erabilera areagotzeko berria, baina zentral eolikoak kokatzeko aukeratutako tokiek sortu dute aipatutako kezka. Euskal Autonomi Elkarte bairarak erabat hondaturik daude eta men-

dietan bakarrik aurki daitezke nolabaiteko gune naturalak. Mendietako balio naturalak (paisaia, geologia, landaretza, fauna,...), kulturalak (aztarna arkeologikoak, mitologia,...) eta aisialdiarekin zerikusia dutenak ondo zaintzeko premia dugu, eta ardura horrek lehenetasuna izan behar du.

Energia eolikia lortzeko, zentral elektrikoak 40 metroko altuera duten haize errotez baliatzen dira, 20 metroko itxoroskiak dituzten haize errotez (zentral eoliko bakoitzak 20 eta 150 bitarteko haize errota kopurua izan dezake). Errentagarritasuna lortzeko 800 metroko gutxieneko altuera duten mendi lerroetan kokatu behar dira, kilometro batzuk dituen lerroa osatuz. Hau dena gutxi biltz, tona handiko garraioetako bideak, erroten arteko loturak eta bestelako eraikuntzak ere eskatzen ditu. Zentral elektrikoak, beraz, industri instalakuntzak dira, denboraren joanarekin beste mota batzuetako instalakuntza batzuen ezarpena erraztuko dutenak.


Horietako zentral bat ezartzeko aukeratutako kokaguneetako bat, jakina denez, Karakate-Irukutzeta mendi lerroa da. Kasu honetan, errotek 60 metro baino gehiagoko altuera izango lukete, 50 tona baino gehiagoko pisua, 100 metro karratuko plataforma, eta 50-250 tonako garabiekin jarriak.

Energia berriztagarriak erabiltzearen apostua egin behar da, baina ez edonola. Mendiak dira industrializatu gabeko azken guneak. Natura babestu ala mendiak industrializatu? Babesaren ordua iritsi da, eta berandu izan baino lehen beharrezkoa da horretarako azpiegitura eolikoaren arazoizko ezarrera bermatuko duen arautegia lantzea.

Barrak, Birak eta Barreak



CXCKOE 99II.40



Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGO1BAR

tr 943 74 41 12

Publizitatea:

vt 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalqi.com

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso

KAZEFARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUELIZITATEA Maitane Cid

MAKETATZAILIA BeaAnsola

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GenewrziA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Irati Agreazalidegi,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maidier Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Amaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaijo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loiola,

Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea,

Julian Segundo, Jon Suarez,

Aniel Ugarteburu, Iban Urizar.

Miren

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



fundazioa
III 3E fundaci6n

414 **DANOBAT**

44 **GOITI**
GRUPO DANOBAT

Enle herpoija dek-ete

Nazkatuta nago, potrotaraino esango nuke, baldintzak direla-eta, baina beti betikoentzat. Eta nor dira betiko horiek? galdetuko du norbaitek. Horiek, 20 urtean atxilotetak, torturak, kartzela, deportazioa, exilioa eta kriminalizazioa pairatu dutenak dira; sosik eskatu gabe, poltronak aldarrikatu gabe, euren izerdia eta baita bizia ere eman dutenak, gure karrika eta herrietan presoan alde hainbat modutan borrokatzen dutenak.

Lehen zioten armak utzi behar zirela Euskal Herrian subiranotasuna denon artean eraikitzeko. Orain, kale borroka gaitzetsi behar dela, gero agian, pankartarekin PPko faxista eta kartzeleroen kontrako salaketa egiteko debekua. 20 urtean Espainiarekin gustura sentitu, GALekoekin gobernatu, euskal militanteak atxilotu, hil, gure Mahai Nazionala atxilotu eta kateaturik epaile atzenitarren eskuetan, EGIN egunkaria itxi eta kalera ateratzera ausartu ez zaretenok, manifestazio batera etortzeagatik EHri baldintzak eskatzeko legimitatea daukazuela uste duzue?

Barre egiteko modukoa dirudi, kontua hain serioa ez balitz. Nola ausar daitezke Ibarretxe baldintzak eskatzera Bilboko manifestaziora joateko adorerik eduki ez badu? Hemen baldintzak eskatzeko eskubidea duen bakarra Ezker Abertzalea da. Eta baldintza honakoa da: bete ezazue Lizarra-Garaziko Akordioa. Lizarrako akordioak ondokoa dio: gatazka politikoa da, irtenbidea negoziazio politikoa, ez dago aurrebaldintzarik, baldintza bakarra Estatu espainolak euskaldunok erabakitzen duguna errespetatzea da. Orduan helduko gara BAKE egoera batera eta orduan desagertuko dira adierazpen biolento guztiak.

Abertzale guztiok elkarrekin egin beharko dugu lan Euskal Herriaren alde, txikikerietan sartu gabe. Gure Herriak merezi duelako eta guk BAKEA eta ASKATASUNA zor diogulako.

Kurutz Castrillejo

Ikastolakeen eskerrak

Elgoibarko San Bartolome Ikastolak, Gabonzahar feriako txosna dela-eta emandako laguntzarengatik eskerrik beroenak luzatu nahi dizkie Udalari, DEBEMENi, harakinei, muntaian lagundu zigutenei eta barraren kanpoan zein barruan parte hartu zuten guztiei.

S. Bartolome Ikastola

Eskerrik asko Elgoibar

Bukatu berri dugun 1998 urtea Haritz Euskal Dantzari Taldearen XXV. urteurrena izan dugu. Berau hainbat ospakizunez bete da.

Herriko 35 elkarteren eskaerak jaso eta 50 ekintzatan hartu dugu

Bestalde, herriko kanpo, Deban, Donostian eta Mendaron 3 alditan, eta baita ere, Altsasun, Getxon, Lezon, Santurtzin, Gasteizen, Eibarren, Basaurin, Loiolan, Arrasaten, Segovian, Astigarragan, Añorgan, San Asension, Miarritzen, Donibane Lohitzunen, Beran, Andoainen eta Azkoitin dantzatu dugu.

XXV. urteurrena izan dela-eta, 30 ekintza antolatu ditugu. Hitzaldiak, ikusentzunezkoak, erakusketak, dantza garaikideko edo tradizionalako saioak etab. Hauetatik goraiatzekoak dira Txistulari Eguna, Trikitilari Eguna (Gelatxo omenduz) eta, nola ez, taldeko sortzaileei San Bartolome Egunean eskainitako omenaldia.

Bestalde, San Bartolome bezperan Udalak Urrezko Domina oparitu zigun.

Ospakizun guztietan herritarren erantzun ezin hobeja jaso dugu. Bihotzez txalotu nahi zaituztegu beti gurekin izan zaituztegun.

1999 urte berria ona izango den itxaropenean, bihotzez, eskerrik asko Elgoibarko herri guztiari.

Haritz Euskal Dantzari Taldea

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazilako erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.



• Udaleko Kultura Saitetik deitu digute honako kexa hau azaltzeko: **"joan den asteburuan, norbaitek suitzalgailu bat lapurtu zuen Herriko Antzokian.** Lotsagarria iruditzen zaigu horrelako gauzak gertatzea eta horregatik publikoki salatu nahi dugu".

• Jubilatuta batek ondoko kexa helarazi digu: "Entierro egun batean elizan nengoela, pixagureak lehertu behar eta bolatokiko komunera jo nuen, eskua bragetan nuela eta... **joño, komuneko atea itxita.** Korrika batean Plaza Txikiko komunitara joan eta heldu orduko (brageta irekita, denbora aurreratzeko), ate bat itxita eta bestea ere bai. Non uste duzue egin nuela pixa? **Komunak zertarako dira, adornorako?"**.

• Emakume batek aditzera eman nahi du **"Madalako parkeko baldosak berriz ere apurtuta daudela"**. Parkean geunden egun batean, gure neskatoak hanka zulo batean sartu eta min hartu zuen. Ez legoke gaizki baldosa berriak jartzea".



TXALOAK

• Elgoibarko odol Emaileen Elkartekoek **herriko odol emaileak txalotu nahi dituzte "98an 800 odol ontzi eman zituztelako (320 litro odol) hutsaren truke"**.



Agur Mireni eta ongi-etorri Maitaneri

Urte berriarekin batera, aldaketak iritsi dira BARREnera ere. Ia 2 urtez gure artean publizitatea lortzen ibili eta gero, agur esan digu Miren Morenok. Lankide eta profesional na izateaz gain, lagun ezin hobea ere izan da. Eskerrik asko guztiarengatik eta zorte on, Miren, lan berrian. Bere orde, beste elgoibartar bat etorri zaigu, Maitane Cid. Hemendik aurrera Maitane izango da iragarkien bueltan ibiliko dena. Ea berak ere Mirenek izan duen harrera izaten duen merka-



**BATZUK LOTSAGARRI
IBILTZEN DIRA**



Txakurrekin ABENTURAN UDIN

Monegros deitzen da Espainia mailan txakurrekin egiten den lasterketarik gogorrena. Bertan parte hartu zuten iazko abenduan Asier Serrano eta Francisco Romero elgoibartarrak. Lau egunetan, Lleidako desertua zeharkatu zuten txakurrek gidatutako gurdi gainean eta inolako seinalizaziorik gabe. Abentura bat izan da, hitz haunditan idatzia. Asierrek Elgoibarrera itzuli orduko jo zuen BARREnera. Berak bizi izandakoa kontatu nabi zituen eta, entzunda-koak entzunda, merezi du ondoko erreportajea irakurtzea.

Amets bat errealitate bihurtu du Asier Serranok. "Duela bi urte hasi ginen entrenatzen Monegrosen parte hartu ahal izateko. Oso lasterketa gogorra da, ez du zerikusirik txakurrekin elu-

rretan egiten direnekin". Izan ere, Asierrek azaldu digunez, Monegrosek badu berezitasun bat, egunetan **200** km. egin behar dira baina pistak ez daude seinalizatuak. Etapa bakoitza herri batean hasten da eta helmugara iritsi arte, zuk zeuk aurkitu behar duzu bidea desertu erraldoi eta zoragarri batean". Izan ere, Monegros Lleida eta Zaragoza artean dagoen desertua da.

GURDIAN HASI ETA BIZIKLETAN AMAITU

Azken bi **urteotan gogor** aritu dira entrenatzen Asier Serrano eta Francisco Romero. Asier izan da Musher-a eta Franciscok egin ditu Handler lanak. Musher-a txakurrak gidatzen dituen da eta handler-a laguntzailea, txakurrak zaindu eta prestatzeaz arduratzen dena. "Denbora luze honetan txakurrak

erosi eta prestatu ditugu eta gu geu ere, lanetik atera eta ahal genuen guztietan ibili izan gara gogor entrenatzen. Hala ere, Monegros-en parte hartu arte ezin duzu ezta imajinatu ere egin zer-nolako zailtasunak topatuko dituzun bidean". Izan ere, Asier sei txakurrek bultzatutako gurdiarekin atera zen eta brzikleta gainean amaitu zuen txakur bakar batekin.

DESERTUKO BAKARDADEA

Abentura abenduaren 5ean hasi zen. Lehenengo etapa 35 kilometrokoa zen baina Asier eta bere txakurrak erabat galduta ibili ziren, "mapan agertzen diren bide batzuk desagertuta daude eta ez dituzu inondik inora aurkitzen. Azkenean, pista batetik jarraitzea erabaki eta une askotan, aldapa behera izugarriekin egin nuen topo. Txakurrak askatu, gerrira lotu eta ahal bezala jaitsi ginen. Handik aurrera ere antzera, ezin bide egokia aurkitu. Kontua da, iritsi ginenerako 55 kilometro egin genituela". Monegros desertuan sugeak eta armaiarma pozointsuak daude eta horrek abentura are arriskutsuagoa bihurtzen du. nOinarritzkoarekin ateratzen zara. Ura edateko, txakurrentzako likido bizigarriak, botikina eta, nire kasuan, 'Huesitos' batzuk jateko. Horri gehitu behar zaizkio mapa eta brujula". Telefono mugikorra ere eraman dezakete baina larrialdiren batean daudenean bakarrik dute aukera erabiltzeko, "bestela, zuzenean deskalfikatu egiten zaituzten. Asierrek aitortu digunez, behin izan zuen tentazioa deitzeko, "erabat galduta nengoen. Ez nekien nondik nora



Harreman e —oztzen da gidarien eta trakurren artean.



Asierrek, sei txakurrek bultzatutako gurdiarekin hasi zuen lasterketa baina bizikleta gainean eta txakur bakar batekin iritsi zen helmugara.

jo. Desertuan oso bakarrik sentitzen zara, nahiz eta txakurrak zurekin egon inpotentzia oso handia da. Negarra etortzen zaizu begietara eta une batek bestera amore emateko tentazioa izaten duzu. Zorionez, nik Furgonetan ahaztuta laga nituen antolatzaileen telefonoak eta ezin izan nien deitu. Horri eskerrak, jarraitu egin behar izan nuen eta lortu ere lortu nuen Monegros bezalako lasterketa gogor bat amaitzea". Azken batean, Monegros lasterketan garrantzitsuena ez da irabaztea, lasterketa amaitzea baizik. Horregatik, partehartzaileen artean sortzen den harremanak asko eragiten du. "Alde borretatik oso aberastua etorri naiz. Benetan jende jatorra ezagutu dut eta horiei esker lortu nuen amaierara arte irautea".

GIDARIEN ETA TXAKURREN ARTEKO ELKARLANA

Francisok azaldu digunez, "handler-ak ere oso gaizki pasatzen du lasterketa osoan. Azken batean, gu herri batetik bestera Furgonetan joaten gara eta musher-a iritsi artean oso urduri egoten gara. Zure laguna eta txakurrak nola dauden ez dakizu eta helmugara sartzen

ikusi arte ez da batere ondo pasatzen. Zain egoteak ere badu alde txarririk". Hori bai, gero Francisok arduratu behar zuen txakurrak mimatzeaz, masaiak emateaz, jaten eta edaten emateaz eta abar. Ondorioz, "askotan txakurrek kariofro gehiago hartzen dicte handierari musher-ari baino. Baina, txakurrak oso argiak dira eta badakite bereizten baikoitzaren papera". Asierrek esan duenez, "azken batean, musher-ak gidatu

behar ditu txakurrak eta nekatuta daudenean animoak eman behar dizkie, mimitu, beharrezkoa denean gurditik jaitsi eta tiratu... elkarlana da, azken batean".

Asier, Francisco eta euren bost txakurrak, Fantom, Xuk, Ushuaia, Zumai eta inuk 15.ak geratu ziren. Hogeita hamabost partehartzailetatik hogeik lortu zuten amaierara arte irautea. Asierri begiak emozioz bustitzen zalzkio abentura kontatzean,

"eskerrak eman nahi dizkiet abentura hau aurrera erarnaten lagundu diguten guztiei. Elgoibarko denda eta taberna gehienek laguntza eskaini digute eta horiek gabe ezinezka izango zatekeen guretzat Monegrosen parte hartzea. Elgoibarrei eta Jakan txakurrentzako pentsua egiten duen etxeari gure eskerrak beroenak eman nahi dizkiegu". Asierrek aitortu duenez, "asko sufritzen da baina merezi du. Pasatako guztia ahaztu egiten zaizu garaikurra jasotzen duzunean. Sekula ahaztuko ez dudana bizipena izan da". Aurten, ahal badu, errepikatzeke asmoa dauka, hori da bizitakoak merezi izan duenaren seinalerik garbiena, "Monegros-ek maiteminduta utzi nau".



Francisco Romero handler-a izan zen.

Bake prozesua bide onetik doala uste al duzu?




ROSA AGIRREGABIRIA
43 urte, etxekoandrea

Esperantzia ez dot galdu. Hala ere, egun hauetan politikuek darabilten tonuak ez dau onik eitxen. Aukera hau galtzia pena handixa litzake danontzat.




ARANTXA AGINAKO
33 urte, langabetua

Gure aldetik behintzat ahalegintzen gera baina bestien aldetik pausorik ez da ikusten. Euren aldetik batez ere, interesa dao gauzak dauden bezela lagatzeko.



FELIX LODOSO
64 urte, pentsionista

Gobernuaren aldetik borondate gutxi dago eta azken egunotako istiluak aitzaki bezala hartu dituzte aurrerapausorik ez emateko. Araza berba eginez konponduko da.



JORGE HERNANDO
42 urte, espezialista

Abertzaleon batasuna Lizarr-Garaziko akordioan gauzatu da eta Madrili ez zaio batere gustatu. Hala ere, prozesua bide onetik doan. Normala da tentsioak egotea.



M. JESUS AROSTEGI
50 urte, etxekoandrea

Esperantzia badakat baina ez dakitx gauzia piska bat okertuta ez daon. Denboria pasatzen laga biharko da ia gauzak bere onera datozen. Danak nahi dou pakia.



PRISCILIANO CASADO
77 urte, jubilatua

Nire ustez PNVren esku dago arazoa konpontzea, bera baita indar nagusia. Batzuekin **ala** besteekin elkartu, **hor** dago alde. Aspaldian **ez du bide** zuzena hartu.



HAUEK DIRA urtarrilaren
Ilko zozketaren IRABAZLEAK:

Sevi Plaza
Garbiñe Beristain
Javier Barandela
Belen
Isabel Etxeberria
Honorio Fernandez

Lore Alberdi
Tere Zabalo
Miguel Cabo
Amparo Kilimon
Marisa Rodriguez
Amaia eta Alfonso

943 74 28 75

F [[_ [f | 1



9, \ U.D ■ t \ V \ 3-9_Z,

Exclusivas Deba-koa

- **Zein bizipenez mozkortu nahi zenuke?**
Beti nahi izan dut kruzero bat egitea.
Mozkorrek egia esaten al dute bliti?
- Bai, kaso egin behar zaie.
- **Zuk ere, ardo onek bezala, urteekin onera egin al duzu?**
- Nik uste dut baietz, urteekin zer nahi duzun garbiago jakiten duzu.
- **Ura dutxatzeko bakarrik al da?**
Dutxatzeko eta haginak garbitzeko.
- **Zer ospatu nahi zenuke txanpainaz?**
- Errealak Liga irabazi duela.
- **Desertuan egongo bazina, zein edariren espejismoa ikusi nahi zenuke?**
Egarriaren kontra ura da onena.
- Cleopatra astoaren esnetan bainatzen zen. Zuk zein edari aukeratuko zenuke?
Beti esan izan dut Coca-Cola eta ginebraz beteriko bainera batean sartuko nintzatekeela gustura.
- **Goizetan zein gosarik jartzen zaitu martxan?**
Esnatu berri ur hotz-hotza edaten dut eta gero goizeko 10:30ak aldera ebaki bat eta pintxo bat hartzen ditut.
- **Zer egiten zaizu patxarana bezain enpalagoso?**
- Eztia.
- **Ur naturala bezalakoa zara ala gasduna?**
- Gas piska bat daukadala uste dut.
- Edaria izan gabe, zer nahi zenuke banatzea **debalde?**
- Bakoitzari bere ametsetako bidaia oparituko nioke.
- **Bizitzan oinarrizkoa zaizun zein elementuren bilduma egingo zenuke?**
- Osasunarena eta denbora librearena.
- **Nori bidaliko zenioke mezu bat botila batean sartuta?**
Fidel Castorri. Gustatuko litzaidake ezagutzea.
- **Zer irakurri nahi zenuke biharko egunkarian?**
- Bakea lortu dela eta munduan ez dagoela haurrik gaixorik.

Abenduaren 27tik aurrera
berriturik gatoz



**BESTE BATZUK JANTZI
EGITEN GARA**

e u s k a l d u n o n
Egunkaria

• **Guraseentzako euskara ikastaroen epea luzatu da**

Elgoibarko Udalak herriko euskaltegiekin batera antolatu dituen 'Serne-alabekin solasean eta jolasean' egitasmoaren baitan, euskara ikastaro bereziak eskainiko dira gurasoentzat. Udaleko Euskara Saitetik esan digutenez, guraso batzuek izena eman badute ere, "ezinezkoa da ordutegi berean talde bat osatzea, gutxienez hamar pertsona behar baitira". Hala ere, eta horrelako ikastaroek euskararen transmisiorako duten garrantziaz jabetuta, antolatzaileek izena emateko epea luzatu dute hil honen 22ra arte. "Talde bat osatzeko asmoz, ordutegi bakarra antolatuko dugu bazkaloetan 14:45etik 16:15era". 23 orduko ikastaroak izango dira, euskaraz hitz egiteko arazorik ez duten gurasoentzat. Izena emateko 943 74 43 66 telefonora deitu.

25.000 lagun baino gehiago izan dira Parrokiko Jalitza ikusten

Elgoibarko alde zaharreko maketa Udaleko Pleno Aretoan jarriko da

Jaiotzako Batzordeko presidentea den Anton Zabaletaren esanetan, "25.000 lagunetik gora izan dira Leku-Ederreko lokalean dagoen Jaiotza ikusten. Iaz baino jende gehiago ibili da, herritarrez gain, kanpotar mordoa". Hilaren 18ra arte, astelehena, egongo da ikusgai Jaiotza baina Gillerrno Garate alkateak jakinarazi digunez, Udalak beretzat hartuko du Jaiotzan agertzen den Elgoibarko alde zaharraren maketa: Plaza, eliza, San Bartolome eta Errosario kaleak eta erreka. "Udal areto plenoan jarriko dugu ikusgai, horrelako lana gordetzea merezi baitu". Benetan lan gogorra egin dute aurten Jaiotzako Batzordeko 14 lagunek. Jakina denez, Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrena dela-eta sortutako ideian oinarrituta dago Jaiotza. Anton Zabaletak esan bezala, "esfortzu berezia egin dugu aurten, alde guztietatik begiratu. Nik uste dut elgoibartarrak bihotzean ikutu ditugula eta horrek balio berezia dauka".

Bestalde, abenduaren 21ean, Jaiotzako Batzordeko kideek eta kide ohi guztiek omenaldi beroa jaso zuten Udalaren



eta Haritz Dantzari Taldearen partetik. Udal agintariek, Haritzeko ordezkariak eta herritarrek hartu zuten parte ekitaldian. Goiko argazkian, Jaiotza ikusgarria agertzen da eta behekoan, omendutako Jaiotzako kideak.

Jon Bastida



Josu Iparragirre



Jon Bastida eta Josu Iparragirre, Morkaikoren Argazki Lehiaketako irahazleak

Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatutako Argazki Lehiaketa eta Erakusketan saritutako argazkiak dira honakoak. Ongarri Argazki Kolektiboko Ramon Ortega eta Jesus Mari Sarasua izan dira epaimahaikoak. Hauen iritziz Jon Bastidak merezi izan du 30.000 pta.ko saria Alpeetako Barre des Ecrins mendian ateratako argazkiarengatik. Sari herrikoa, berriz (20.000 pta.koa), Tachdirt izeneko argazkiarentzat izan da, Josu Iparragirrek egindakoa. 510 bototatik 60 jaso zituen. Ezkerrean, Jon Bastidaren argazkia eta eskuman, Iparragirrerena.



PNV, EA, EH eta IU/EB alderdiek deitutako presoen aldeko kontzentrazioa

98 urteko azken egunean, abenduaren 31n, hain zuzen, 200 bat lagun elkartu ziren Plaza Handian PNV, EA, EH eta IU-EB alderdiek antolatutako presoek euskalerriratzearen aldeko kontzentrazioan. Ordu erdi inguruz luzatu zen eta parte hartu zutenen artean pentsamolde askotako herritarrak zeuden, tartean udal agintariak ere bai, besteak beste, Gillenno Garate alkatea, Jose Mari Oruesagasti alkateordea eta PNV-EAJko, EAKo, IU-EBko eta HBko zinegotziak. Bestalde, joan den zapatuan, hilak 9, lau autobus bete ziren Elgoibartik Bilbon izan zen manifestaziora joateko. Hiru HBk antolatutakoak ziren eta bat PNV/EAJ alderdiak jarritakoa.

Estimazio handia izan du Haizea Emakume Taldeak antolatutako sukaldaritza ikastaroak

Haizea Emakume Taldeak Gabonetako jakiak prestatzeko ikastaroa antolatu zuen abenduan. 18 emakumek hartu zuten parte ikastaroan; beste asko, berriz, kanpoan geratu ziren kideen kopurua mugatua baitzen. Ikastaroan izan diren emakumeek esan digutenez, "benetan polita izan da. 5 egunez aritu gara sukaldetan eta egunero 5-6 plater egin ditugu: budinak, entsaldak, mazapanak, legatza eta bildotsa era askotara, tiramisua, txokolatetzko turroia, Erregeetako roskoa, trufak,..." Bide-Egin Garrantia Sozialeko Moduloetako hiru lagun izan dira irakasleak eta bai antolatzaileak eta bai ikasleak ere, "oso gustura" geratu dira ikastaroarekin, "berriz ere zerbait egiteko gogoarekin".




Olentzeroren kalejira eta Errege Kabalgata jendetsuak izan ziren

Gabonak joan dira eta askok ahaztuta izango dute Gabonetan izandako ekintzak. Hala ere, Atxutxiamaiak Begirale Taldeak antolatutako Olentzeroren kalejirari eta Katekistek prestatutako Errege Kabalgatari txoko txiki bat egitea erabaki dugu. Abenduaren 24an, Olentzerok herriko kaleak zeharkatu zituen. Haurrek ilusioz eta pozarren ibili ziren kantari, bazekitelako amaieran Olentzerori eskutitza emateko aukera izango zutela. Horrenbeste esan daiteke Errege Kabalgatari buruz. Urtarrilaren 5ean, Plaza Handia lepo zegoen Erregeei ongi-etoni beroa emateko. Ilusioz gainezka, herriko kaleetan adi-adi egon ziren Erregeei begira. Bukaeran, Plaza Handian espreski jardutako eskenatokian, eskutitzak eman eta poz-ozik Erregearen belarrira kontutxoak esateko aukera izan zuten.



ESKERTZA

1998ko abenduaren 20an, 82 urte zituela hil zen
IMANOL AIURIA GARATE,
 Batallon San Andres-ko gudart ohiaren sendiak,
 bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



N-634 errepidean sortzen diren arazoak konpontzeko ikerketak 6,0 milioi pezetako kostua izango du

Puntu beltzak identifikatu eta irtenbideak topatzea da helburua

Orain dela hilabete inguru aurreratu genuen bezala, martxan dago N634 errepideari buruzko azterketa. Gipuzkoako Aldundiko Garraio eta Errepide Sailak darama gaia eta proiektua *Injelan* eta *Leber* enpresen esku utzi du. Hemendik aurrera bi enpresen ardura izango da N634 errepideak Elgoibar zeharkatzen duen ibilbidean zein arazo sortzen diren aztertzea. Puntu beltzak identifikatu eta gero, hurrengo pausoa irtenbideak aurkitzea izango da.

Alde batetik, N634 errepideko gurutzebideak ikertuko dira. Honela bada, Melitongo zubia, Madalako zubia, Txankakua eta Santa Klarako zubiak eta Sigmako zubia aztertuko dituzte. Izan ere, aipaturiko lekuetan eta ordu jakinetan auto ilada luzeak sortzen dira enepidera atera ezinik, eta beharrezkoa izaten da Erztantzaren edo Udaltzaingoaren presentzia trafikoa zuzentzeko. Azterketa honetatik aterako diren ondorioen arabera, epe ertainera arazo guztiei irtenbideren bat topatzea da helburua.



Madalako zubian sortzen diren arazoak ez ezik, Melitongo zubian, Txankakuan, Sigman eta Santa Klaran ere sortzen direnak aztertuko dituzte.

Azken batean, gidarientzat oso puntu arriskuak dira gurutzebide horiek eta herritarrek luze daramate soluzioren bat eskatuz.

Urasandiko irteera kanpoan geratu da

Edozein modutan, badago gurutzebide bat azterketan sartu ez dutena eta berebiziko garrantzia duena: Urasandikoa, hain zuzen ere. King-Kongeko zubi parean dagoen gurutzebidea benetan arrisksua da gidarientzat. Izan ere, errebuelta bat dela eta, oso zaila da Madalatik datozen autoak garbi ikustea. Gainera, irteeran bertan, ubide txiki

bat dago eta erroberak irrist egiten dute bertan. Urasandiko irteera hori, beraz, gainontzeko zubiak bezala sartu beharko litzateke azterketan.

Proiektu honek hasieran 7,5 milioi pezetako kostua izango zuela kalkulatu bazen ere, badirudi, azkenean aurrekontua 6,6 milioikoa izango dela. Injelan eta Leber enpresek izango dute N634 errepidearen azterketa egiteko ardura.



iffitairb~ detregra/596'

Jausoro plaza, 1 behea • Tel: 943 74 26 99



Delegatuak: Manuel Santos Alba eta M. Luisa Urain Arakistain

Elgoibarko delegazioak urtero bezeroen artean zozketatzen duen telebista, Uzuri Larratiagak irabazi du, Zorionak!

Gabonzahar Feria Sekula baino salmenta gehiago



1998ko abenduaren 26an izan zen Gabonzahar ferian saltokiak herrian sakabanatu zituzten eta horregatik, askoz lasaiago ibiltzeko modua zegoen. Baserritarrak pozik azaldu ziren egunak emandakoa-ekin eta esan zuten, sekula baino gehiago saldu zuten. Eguraldiak ere lagundu zuen egun guztian. Zerua oskarbi azaldu zen eta giroa epel. Herria ia al-

derik alde zeharkatzen zuten saltokiek: barazkiak, frutak, gozoak, sagardoa, artisautza, ganadua,... Egun honetan, baserritarrak kaletar eta kaletarrak base-rritar bihurtzen dira.



XVII- Gazta Lehiaketa

Goikoerrota Elkartek antolatzen duen XVII. Gazta Lehiaketa izan zen 1998koa. 33 gazta aurkeztu zituzten eta horien artean Oñatiko Nikolas Seguro-larenak irabazi zuen. Bere izenean Koldo Madariagak jaso zuen saria. Madariagak egiten ditu gaztak Seguro-laren ardien esnearekin. Seguro-laren gazta saritu zuten baita ere Tolosako eta Arrasateko lehiaketetan.

Sariak

GAZTA LEHIAKETA

- 1- Nikolas Seguro-la, Oñati
- 2- Jose Ramon Etxabe, Urretxu
- 3- Jesus Aranburu, Idiazabal

IKUSLEEK ENIANDAKO SARIA

Jose Andres Aurikana, Gereño

BARAZKI LEHIAKETA

- 1- Pello Rubio, Elgoibar
- 2- M. Angeles Andilcoetxea, Urduliz
- 3- Santos Duñabeitia, Berriz

FRUTA LEHIAKETA

- 1- Antonio Iparragirre, Mutriku
- 2- Maria Etxezarreta, Gabiria

SALTOKI ONENA

- Antonio Iparragirre, Mutriku

HERRIKO SALTOKI ONENA

• Pello Rubio, Txillarre

PRODUKTUEN KALITATE, BENEKOTASUN ETA ITXURAREN SARIA

- Adela Andikoetxea, Urduliz

MENDI ZAINDUENAK DITUENARI

- Jose Mendikute, Zabaleta base-
rria (Elgoibar)



INEMHOOL 1

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORA K
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX

POL-POL


T A B E R N A

San Bartolome, 19 - Tel: 943 74 08 74

GABONZAHAR FERIA ARGAZKITAN

Hona heinen iazko Gabonzahar ferriako hainbat irudi. Hauetan ikus daiteke zernolako giro bikaina egon zen. Gazta, barazkiak, dantza, Ikastolakoek erretako txahala, taloa... denetik izan zen. Egun konpletoa hurreratu ziren guztiek goza zezaten.





1999-I-15

KEZUKOTIK BINSERIPAT 3

Eigoibartar sarituak

Azken Gabonzahar ferian bi elgoibartar izan ziren sarituak: Pello Rubio, Txillarre baserrikoa eta Jose Mendikute, Zabaleta baserrikoa. Hauez gain, Zeleta baserriak aipamen berezia jaso zuen bertoko produktua bultzatzeagatik. Bi hitz luzatu ditugu beraiekin, sariak irabazteari buruzko sekretuak jakin nahirik. Baina, kasu honetan ere, sekretu bakarra lana egitea da.



JOSE MENDIKUTE

Zabaleta baserria

- Elgoibarko mendirik zainduenak izateagatik jaso duzue saria. Pozik, ezta?

- Bai, horixe! Sorpresa haundixa izan da, ze holakorikan ez dozu sekula espero. Ilusio haundixa itxen dau.

- Zenbat hektarea dituzue?

- 25 hektara inguru eta gehixen pinua dakagu sar-

tuta.

- Eta zein da zuen sekretua?

- Sekretu bakarra bildurripe lana itxia da. Mendixak txukun eta garbi eukitzeko garbitxu biharra dao, batez ere pinua gaztia darian. Semia eta bixok ibiltzen gera eta egualdi txarra eta eurixa dauanian izan ezik, ixa egunero juten gera basora buelta bat eman eta txokuak garbitzera.

- Diruarekin? Kapritxoren bat edo?

Afari eder batekin ospatu eta kitto!

PELLO RUBIO

Txillarre baserria

- Aurten ere saritua izan zara. Ohitua, dagoeneko?

- Buruan beti daukat egunen batean beste batek irabaz dezakeela, baina ni saiatuko naiz beste horri gauzak ahalik eta zailen jartzen.

Zein da zure sekretua?

Produktuen kalitatea ona izateaz gain, azokan

aurkezteko era txukuna izan behar da, koloreak konbinatu eta abar. Ni abuztuan hasi nintzen azokak prestatzen eta bi hilabete aurretik, nire baserrian gutxi gorabeherako montajea egiten dut.

- Azokak sariak irabazteka al dira?

Batez ere, baserritarrak bere produktuen marketing-a egiteko dira azokak. Gure produktuak aurkezteko era oso ona da eta horri gehitzen badiozu sariak ere irabaz ditzaitezula, askoz hobeto.

- Zer egin duzu irabazitako diruarekin?

- Niretzat paga estra bat da eta lanean jarraitzeko inbertituko dut.



Tel. 943 19 93 89 | TZ 1 AR

TXIN'D1111071
ITUXR51
SAGARDOTEGIA



Susana Mujikak 27 urte baino ez dituen arren, jadanik Iparragirre Sari bat lortu du. Leioan kazetari-tza ikasi eta hadira zortzi urte irratian lanean hasi zenetik. Gauzez lan egin beharrak bere alde txarrak badituen arren, Susanak jaso du bere esfortzuaren-gatik merezitako esker ona. Guk goizero Euskadi Irratian entzun dezakegun ahots horren jabea gertu-gotik ezagutu nahian, zuengana hurbiltzea pentsatu dugu.

SUSANA MUJIKAKA

"Niretzat irratia unibertsitate bat izan da"

— **Zein dira kazetari-tza munduan orain arte eman dituzun pausuak?**

Euskadi Gaztean sustutuzio bat egitera sartu nintzen uda batean eta ondoren bertan postu bat eskaini zidaten. Lau urte egin nituen han eta gero Euskadi Irratian programa berri bat hasi behar zelareta hara pasatu nintzen. Iaztik *Goizean Behin* saioan lehenengo ordua egiten hasi eta gaur egun horretan dihardut.

— **Beti irratian aritu al zara?**

Ez, telebistan ere egin izan ditut gauza batzuk, baina nire burua irratian esataritzat daukat. Irratia beste mundu bat da, nik aukeratzen dut musika, gidoiak egiten ditut eta gainera inork ez nau ikusten, ni neu naiz.

— **Kazetaria egin ala jaio egiten da?**

Kazetaria piskanaka egiten da. Niretzat irratia uniber-

tsitate bat izan da, bertan gauza asko ikasi ditut. Hala ere, sekula ez nuen pentsatu profesionalki hain gora iritsiko nintzenik.

— **Nolako izan da Euskadi Gazteatik Euskadi Irrati-rako aldaketa?**

Oso handia. Euskadi Gaztean guztia inprobisazioa zen. Hala ere, niretzat oso eskola ona izan da. Aldaketa handia da, gai serioagoak lantzeaz gain, jende helduagoak entzuten nau eta horrek erantzukizun gehiago eskatzen du.

— **Atsegin al duzu zure ahotsa irratiz entzutea?**

Programa zuzenean egin arren egunero grabatzen dut, baina gero ez zait nire ahotsa entzutea gustatzen. Piskanaka ohitzen noan arren hasieran kostatu egiten zitzaidan. Gainera ahotsa moldatzen asko ikasi dut. Nik zuzenekoan ahots

mota bat erabili ohi dut eta grabazioetan beste bat.

— **Nolako da zure entzuleria?**

Goizeko ordu horietan irratia pizten duena entzule fidela da, irratia batekin oheratu eta berberarekin esnatzen den horietakoa. Lau urte hauetan piskanaka entzule talde bat sortu da, beti berberak deitu arren, badakit gutxienez horiek hor daudeta eta beraiekin konpainia egiten diedala.

— **Irratiz zer albiste ematea gustatuko litzaizuke?**

Jadanik eman dugu. Nik irratian inoiz esan dudan berrikerik onena ETaren suetenari buruzkoa izan da.

— **Aurten Iparragirre Saria eskuratu duzu.**

Niretzat baino gehiago, sari hori familiarentzat eta egunero jasan behar nauen jendearentzat da. Pertsonalki ez dut oso era berezian jaso. Nire saria egunerokoa da, goizero jendeak entzutea, kritikak jasotzea eta batez ere oraindik aurretik urte asko edukitzea gero eta hobeto lan egiteko. Dena den, saria etxean jarrita daukat, amarentzat. Berari eskaini diot, irratian berarengatik sartu nintzelako eta urte hauetan asko lagundu didalako.

— **Aurrera begira kazetari-tza munduan proiekturik ba al daukazu?**

Profesionalki orain daukadana nire helburua da. Egiten ari naizena hobetzea, lantaldea osatzea eta *Goizean Behin* gauza gehiago egitea. Gainera, badakit asko eskatzen duenak azkenean ez duela ezer lortzen. Beraz, niretzat erronka edo amets bakanak egunerokoa da, beti milioi bikoaren aurrean ahal duen guztia ematea.

Irati Agirrezaldegi

EESTEK ESANA

"Txispa eta ezintasuna zen eta da"
ANDRES ALBERDL irakaslea.



ABENDUAN

• • • JAIOTAKOAK • • •

- Iñigo Armendia Zabala (Abenduak 3)
- Ibon Herrero Morilla (Abenduak 6)
- Julen Cuesta Alberdi (Abenduak 15)
- Maialen Kalzakorta Ortega (Abenduak 21)
- 11 Eider Arnedo Aguilera (Abenduak 22)

• • EZKONDUTAKOAK • •

- Vicente Tercero Fernfildez eta M. de los Remedios Serena Santaren (Abenduak 5)

• • • HILDAKOAK • • •


- Vicente Monje Mugerza, 83 urte (Abenduak 15)
- Antonio G6Inez Fraile, 92 urte (Abenduak 16)
- Jose Arrieta Lizarralde, 70 urte (Abenduak 17)
- Ramona Tercero Cabellos, 74 urte (Abenduak 18)
- Imanol Ajuria Garate, 82 urte (Abenduak 20)
- Feliciano Azpeitia Baztarrika, 98 urte (Abenduak 23)
- Justo Narbaiza Zelaia, 74 urte (Abenduak 26)

German Uriguen Ormaetxea (1894-1986)



- 1894ko urriaren 11 n jaio zen, Ermuan. Seme bakarra zen eta ez zuen bere ama ezagutu, umea zela hil baitzitzaion. Gazterik, Ermuko Sallobente auzora joan zen bizitzera.
- Geroago Eibarren hasi zen lanean eta 1924an, Elgoibarko `Gabilondo y Cia'ra elorri zen. 5 urte egin zituen hemen. Ondoren, 'Estarta y Eceenarro'n hasi zen eta azkenik, `Sigma'n, jubilatuta arte.
- 1925eko azaroaren 22an ezkondu zen Parrokian Baleriana Soduperekin eta 4 seme-alaba izan zituzten. Beti bizi izan ziren San Bartolome kalean.
- German *Etxeña* izenez ezaguna izan zen. Aitona, aita eta osaba bat etxeginak ziren eta hortik datorkio goitizena. Gerra garaian, Malagako `Bata-116n de Trabajadores' delakoan egon zen eta beranduago, Ondarretako kartzelan 38 hilabetean.
- 16 urterekin bertsoan hasita. 1. eta 2. sari ugari irabazi zituen lehiaketetan. 4 omenaldi jaso zituen eta bizitza osoa eman zuen bertsoan eta abesten.
- Gauza askotan parte hartutako gizon eskuzabal honek. Elgoibarko 'Estudiantina'n eta Parroki abesbatza abesten zuen. aintza askotan ere aritzen zen: antzerkian, tanbonadako zuzendari moduan eta, nola ez, Santa Agedako koruetan koplari. Zeregin honetan 8 urte eman zituen Ermuan eta Eibanen. Elgoibarren, beniz, 55 urtez jardun zuen.
- Bere entzutea urrutiraino iritsi zen: ETBn elkarrizketa egin zioten eta Ba:sarrik ere elkarrizketatu zuen `La voz de Esparia" egunkarirako.
- Elgoibartar guztiok jakingo duzuen bezala, hain maitatua eta abestua zen `Salbea' idatzi zuen Germanek. Lagunak zituen Basani. Uztapide eta hainbat bertsolari. Gizon apal eta borondatezko honen omenez hertso paper lehiaketa antolatzen du Elgoibarko Izarrak. C.D. Elgoibarko jarraitzailea zen eta pilozale amorratua.
- Alaia, familikoa eta sinesmenduna zen. Mesede asko egindakoa eta oso maitatua herrian.
- 1948ko apirilaren 14an hil zen 88 urterekin.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoak) 943 74 01 17 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01



A

ste honetako erretratu **Juanito Gorostizak** ekarri digu. Elgoibarko Kurutzeta baserriaren aurrean dago aterata, duela 30 bat urte. Atarian agertzen direnak, ezkerretik eskumara hasita, **Maria** eta **Juanita Arriola** (t) ahizpak, **Maria Luisa Arriola** tehengusina eta **Josefa Arriola** (t), lehenengo bien ama dira. Juanitok esan digunez, Kurutzeta-

ko baserria oso jateixe famatua izan zen; bezero asko zituen. Bizkaitik, Azkoititik eta Elgoibartik joaten zen jendea bildotsa, tripotxak, txuletak etab. dastatzera, sukaldari trebeak baitziren. Gaur egun ere jaten ematen dute enkargatuz gero.

Bazen garai bat erromeria ederra egiten zena Kurutzetan. Azkoitiko erromerietan ez zuten 'agarrauan' dantza egiten lagatzen baina Knrutzetan bai. Horregatik, azkoitiarrak Kurutzetara joaten ziren dantzara, orduan esaten zioten 'dultze meneo'ra.

ARANBURU

BITXIDENDA

ARANBURU bitxidendako
Errege Eguneko zozketako zenbaki sarituak:

1. saria, gizonetzko erlojua:
B seriea 2.593
2. saria, emakumezko erlojua:
B seriea 3.225

Erretserbako zenbakiak:
Gizonetzkoarena D seriea 2.804
Emakumezkoarena E seriea 0472

San Frantzisko, 26 • Tel: 943 74 25 35



• **61. Mugerza**
 < **Krosa hilaren 24an**
w izango da

Cr) Ego-Toki Elkarteko ordezkariak jo eta ke ari dira lartean hilaren 24an izango den Mugerza kroseko Iasterkarien zerrenda osatzeko. Mintxetako ibilbidean norgehiagokan ikusi ahal izango ditugun korrikalari batzuen presentzia ziurtatuta dago jadanik. Euskaldunen artean, aurkezpenik behar ez duen Martin Fiz izango da. Bestetik, 1997an eta 1998an Espainiako kroseko txapelduna izandako Julio Rey-k hartuko du parte. Ohi bezala, atzerritarak ere izango dira: Jon Brown, 97ko Mugerza Kroseko irabazlea eta James Moiben keniarra, 97an eta 98an hirugarrena izandakoa Elgoibarren. Esan digutenez, beste afrikar ospetsu batekin harremanetan daude eta datozen egunotan jasoko dute erantzuna. Urtero bezala, las-1 terketa eguneko bezperan, hilaren 23an, hain zuzen, harre-1 ra egingo zaie korrikalari guz-1 tiei 19:30ean Udalaxeko Areto Nagusian. Bestetik, gogoratu ztea komeni da. Ego-Tokikoek O tzea komeni da. Ego-Tokikoek CC badutela Intemet-eko orria eta e-maila. Hauek dira helbideak:

- <http://www.softlan.com/kross-muguerza>. E-maila: egotaki@softlan.com.

• **Gorputz**
 < **adierazpenari eta**
erlajazioari buruzko
 • **ikastaroa**

CO Hitaren 19an hasita eta - 1 Kirol Patronatuak antolatuta, gorputz-adierazpenari eta erlajazioari buruzko ikastaroa izango da Kiroldegian. Klase egunak astearte eta ostegunak dira eta hilabeteko iraupena izango du. Bazkideek 1.900 pta. ordaindu beharko dituzte eta gainerantzekoek 2.500 pta. Izena emateko 943 74 44 15ra deitu.

Jendetxa taldea izan da GabonWako 11111. Kuadrilarteko Txapelketako irabazlea

Aurten 10 talde aritu dira lehian, iaz baino 6 kuadrilla gutxiago

Abenduaren 31n banatu ziren Gabonetako VIII. Kuadrilarteko Txapelketako sariak. *Jendetxa* kuadrilakoek jaso zituzten saririk gehienak, 4 denara: sailkapen nagusiko saria, txirringularitzako saria, kirolari onenaren saria eta krosekoa. Hauen ostean, *Nothingan Prisa* eta *Spartak Pitxote* sailkatu ziren. Azpian, sariak nola banatu ziren zehazten dugu.

SAILKAPEN NAGUSIA:

- 1- Jendetxa (105 puntu)
- 2- Nothingan Prisa (95 puntu)
- 3- Spartak Pitxote (80 puntu)

Txirringularitza:

Jendetxa

Krosa:

Jendetxa

Kiroltasunaren saria:

Aide Globun

Jokalari onena:

- Asier Orbea

Pala:

- Dinamo Kalimotxo

Saskibaloia:

Dinamo Kalimotxo

Areto Futbola:

Vultur Gryphus



Saritutako taldeen ordezkariak eta sariak banatu zituztenak dira argazkikoak.



Jendetxa-koak izan ziren txapeldunak. Honez gain, krosean eta txirringularitzan ere irabazi zuten.



Aide Globun (eskuman), kiroltasunaren saria.



Asier Orbea (eskuman), kirolari onena.



D. Kalimotxo (eskuman), palako eta saskibaloiko txapeldunak.



Vultur Gryphus, areto futboleko txapeldunak.

Eskolarteko J1/. krosa, Mintxeta Atletismo Saria

Dorleta AranherPik irabazi egin zuen eta Ana Elaniz hhogarren gentu zen

Elgoibarko 19 korrikalarik hartu zuten parte Mintxeta Atletismo taldeak antolatutako Eskolarteko IV. krosean. Haeuz gain, Gipuzkoako herri askotako neska-mutilak ere izan ziren, 165 guztira. Eguraldi txarra iragarrita bazegoen ere, azkenean, aterri egon zen eta kategoria guztietako probak burutu ahal izan ziren inolako arazorik gabe. Antolatzaileek eskerrak luzatu nahi dizkiete parte hartu zuten eta laguntzen aritu ziren guztiei. Elgoibartar korrikalariak gogor saiatu ziren eta merezitako emaitzak eskuratu zituzten. Taulan elgoibartarren lorpenak ikus daitezke:



19 elgoibartarrek hartu zuten parte Eskolarteko Minxetako Krosean. Argazkian, zenbait korrikalarL

150 lagun elkartu ziren 1. Tenis Jaian

Alberto Berasategi tenistaren presentziak erakarrita

Udal Kirol Patronatuak abenduaren 23an Tenis Jaia antolatu zuen. Gonbidatu bereziak izan ziren bertan: Alberto Berasategi, Jose Antonio Conde eta Tomas Olmo tenistak, azken hau Bartzelonan bizi den elgoibartarra. 150 haurrek hartu zuten parte jaian, sakeen abiadura, punteria eta beste zenbait gaitasun neurtzeko aukera izan zutelarik. Ondoren, Elgoibarko I. Tenis txapelketako sari banaketa izan zen. Ander Oriederrak txapela jaso zuen eta Jony Taborciak eta Andres Iturbek bigarren eta hirugarren sariak hurrenez hurren. Oñederrak eta jokoetan nabarmendu ziren bi teniszalek, Berasategirekin jokatzeko aukera izan zuten. Ondoren, Berasategik eta Jose Antonio Condek partidu Iabur bat jokatu zuten erakustaldi modura. Ekitaldian, Olmok, Bera-

sategik eta Condek, oroigarri bana jaso zuten G. Garate alkatearen eta Ales Arrieta zinegotziaren eskutik. Patronatuko zuzendariak esan digunez, "eskertzekoa da hiru tenista handi hauek Bartzelonatik Elgoibarretara etorri izana". Amaieran, Berasategik posterrak banatu zituen zaleen artean eta Inzaro jardun zuen berauek sinatzen.



Berasategi, Conde eta Olmo tenistak Elgoibarko Tenis Txapelketako irabazleekin eta udal ordezkariekin.

Alebin neskak

- 1- Dorleta Aranberri
- 4- Lara Urain
- 15- Ainhoa Uribeetxhenia
- 17- Irune Martfnez
- 18- Laura Vegas
- 19- Alazne Escudero
- 20- Lucia Dieguez
- 21- Leire Apellaniz
- 26- Maider Oñederra
- 30- Erika Tera

Alebin mutilak

- 5- Aitor Arrillaga
- 6- Antton Alberdi
- 51- Ilnai Arce

Infantil neskak

- 3- Ana Etxaniz
- 5- Alaitz Merino

Infantil mutilak

- 24- Julen Merino
- 28- Iker Arrillaga

Kadete mutilak

- 17- Jon Mekolalde
- 18- Jesus Jurado

Futbola

- Haundi 0 - Leonesa 2
- Elgoibar 1 - Segura 0 (1. erreg.)
- Pedrusko 6- Eibartarrak 2 (2. erreg.)
- Retuerto 6- Elgoibar 0 (L. N. jub.)
- Elgoibar 1- Antoniano 2 (1. jub.)
- Elgoibar 4 - Aretxabaleta 0 (Ka(1.)
- Koxkas 0 - Elgoibar 1 (Inf.)
- Mutriku 0 - Elgoibar 5 (Neskak)

Eskubaloia

- 1MH Elg. 22** - La Salle 22 (Senior mul.)
- Ereintza **30** - Tecnomeca EIT **16** (Kad. mut.)
- Ereintza 23 - Pneumax Elg. 26 (Jub. mut.)
- Aurrera 10 - IMS Elg. 17 (Senior nes.)
- Pagoaga Elg. **25** - Oiarso 18 (Kad. nes.)
- Unceta Elg. **23** - Oiarso 9 (Jub. nes.)

Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIko jukalari erregularrena 98/99

JOKALARIA PUNTIJAK

1- Aitor Trebtrio	25
2- Eneko	21
3- Beitia	18
4-Txasio	18
5-Iker Leonardo	17
6-Muguruza	16
7-Diaz	15
8-Elkoro	12
9-Igor	11
10- G. Leonardo	10
11- G. Lazarobaster	8
12- Madina.....	7
13- Caro	5
14- Loren	5
15- Portu	1

'G' E' N' D' I' A

Futbola, Mintxetan

- Larunbata, 16
- 15:30 Elgoibar - Harnaika Bat (Neskak)
- 17:15 Elgoibar - Haimaika Bat (1. erreg.)
- Igandea, 17
- 10:30 Elgoibar - S. D. Eibar (Inf.)
- 12:15 Elgoibar - Romo (L. N. jub.)
- 17:00 Haundi - Tropezon

Eskubaloia, kiroldegian

- Larunbata, 16
- 16:00 Tecnomeca Elg. - Pulpo (Kad. mul.)
- 17:30 Pneumax Elg. - Pulpo (Jub. mut.)
- 19:15IMS Elg. - Kukullaga (Senior nes.)

SAN ANTON JAIK 99

Taupadaren IMari Sorgin/ antzeziana, filatelia erakusketa eta Artazoren aldeko herril kirolak antolatu dira, besteak beste

Gaur, hilak 15, Lourviers-en emanaldia izango da Herriko Antzokian eta astelehenean, hilak 18, Ertzantzaren Bandak kontzertua emango du

Igandean, hilak 17, San Anton Eguna ospatuko dugu elgoibartarrok. Aurten igandea egokitu denez, Udalak astelehenean, hilak 18, jai egitea erabaki du. Hortaz, Udaleko Kultura Sailak antolatutako jai egitaraua gaurtik hasita (hilak 15), astelehenera bitartean luzatuko da. Besteak beste, Lourvier's taldearen utnoretzko saioa, Euskal Mendi Federazioari eskainitako filatelia erakusketa, San Anton Pilota txapelketako azken partidua, Artazo baserriaren aldeko herri kirolen jaialdia eta Taupada talde elgoibartarraren azken lanaren emanaldia izango dira.

Udaleko Kultura Sailetik aditzera eman digutenez, gaur, hilak 15, gaueko 22:30ean izango den Lourvier's taldearen saioa ikusteko sarrerak aurrez salgai jarri behar izan dituzte. "Orain dela gutxi Lourvier's taldekoak Ermuan izan ziren eta emanaldia ikusi ezin izan zuen jende asko deika aritu zaigu sarrerak eskuratzeko. Dudarik gabe, sekulako jendetza joango da ikustera". Bestalde, gaur gauean, San Anton Pilota Txapelketako finalak jokatu dira Ikastolako frontoian 22:00etatik aurrera.

Filatelia erakusketa

Urtero, San Anton jaien bueltan, El-opibarko Filatelia Elkartek erakusketa antolatzen du. Bihar, hilak 16, eguerdiko 12:30ean izango da Euskal Mendi Federazioari eskainitako erakusketaren irekiera ekitaldia. Aurten, 75 urte beteko ditu Federazioak eta urtemuga ospatzeko, Federazioaren inguruan prestatu dute erakusketa. Ohiko moduan, zigilu berezia aterako dute, 75. urteurrenari eskainia. Kultur Etxean bertan eskuratu ahal izango da hilaren 16an eta 17an. Irekiera ekitaldiaren aurretik, Filatelia Elkartearen Euskal Federazioko kideek ez ohiko bilera egingo dute. Ondoren, Udal Txistulariak kalejiran aterako dira Udaletxetik Kultur Etxe aldera. Segi-



Denetik egongo da San Anton jaietan. Iganderako, Artazo baserriaren aldeko herri kirolak antolatu dira, Euskal Herriko harrijasotzaile eta aizkolari onenak izango direlarik. Astelehenean, Taupada antzezataldeak 'Mari Sorgin' lana aurkeztuko du Herriko Antzokian.

dan, inaugurazio ekitaldia hasiko da. Bertan, oparitxo bana emango zaie zigilu bildumen erakusleei. Euskal Mendizale Federazioko ordezkariak aipamen berezia jasoko dute.

Artazoren aldeko jaialdia

San Anton Eguna, hilak 17 (igandea), meza nagusiarekin eta buruhandi eta erraldoien kalejirarekin hasiko da. Eguneko ekitaldirik garrantzitsuenak, berriz, Artazo baserriaren alde antolatu duten herri kirolen jaialdia izango da. Udalaren, DEBEMENen eta Sallobente Elkartearen eskutik, Euskal Herriko harrijasotzaile, aizkolari eta trontzalaririk ezagunen jarduna ikusteko aukera izango dugu arratsaldeko 17:00etatik aurrera Kiroldegian. Aipatzekoa da 17 harrijasotzailek hartuko dutela parte, tartean, Perurena aita-semeek, Saralegik, Goenatxok, Zelaik eta Elgoibarko Mintxetak eta Egik. Aizkolarien artean, Arrospide, Olasagasti, Peñagarikano eta beste asko izango dira. Trontzan, berriz, Mintxeta eta Agarretxiki lanean

ikusi ahal izango ditugu, beste batzuen artean. Balzola anaiak trikitiarekin eta Ziarda eta Meabe bertsoekin giroa alaitzeaz arduratuko dira.

Taupadaren 'Mari Sorgin'

Astelehenean, hilak 18, Ertzantzaren Bandak kontzertua emango du Herriko Antzokian. Goizean eta arratsaldean haurrentzako parkea jarriko da Plaza Handian. Arratsaldeko 19:30ean, berriz, Taupada talde elgoibartarrak azken lanaren aurkezpena egingo du Herriko Antzokian. 'Mari Sorgin' izenburua du eta Bilboko eta Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdian estreinatuta zuten 98ko azaroan eta abenduan. Elgoibartarren azken lan honek oso kritika onak jaso ditu egunkarietan. "Bilboko Jaialdian ikusi den lanik biribite-na izan da" zioen kritika batek. Ikara eta umore sana elkartzeko dira haurrentzako ipuin honetan, musika eta argiztatze ikusgarriak lagunduta. Panpinak dira istorioaren oinarria eta euskarazko antzeziana da.

Maitane Tejero

1 KASLEA - 22 LIRTE



1 -Merezi al du bizi-tzea? Eta Elgoibarren bizi-tzea? Bai, bizitzak gauza politx asko ditxu! Elgoibar gustatzen jata bizitzeko baina Donostia ere bai, ze hiri baten bentajak dauzka baina ez da oso haundixa.

2 -Eutanasia praktika-tuko al zenuke faminako batekin? - Asko sufritzen dauala ikusiko banu, irtenbide hori ez nuke deskartauko.
3 -Hil eta gero?
- Ez dakitx! Deskantzua edo...

4 -Lehenengo ni eta gero besteak. Bestiak ere errespetau ein bihar dia. Garbi euki bihar dozu zuria amaitzen dala bestien eskubidiak has-ten diazenian.

5 .Nori kontaktzen diz-kiozu arazoak? - Lagunei.

6 -Zein da zure bizitza-ko anbizioa? Eta bizioa? - Anbiziva independientia zatia, nere lana eta etxia eukitzia. Biziva, lagunekin urten eta juergak itxia.

7 _Sinesten al duzu poli-tikan? Eman al zenuen botorik? - Ez dot sinisten eta botua ematen doten arren ez dot oso konbenziduta ematen.

8 -Nolz joan zinen azke-nekoz manifestazio batera?

Oin dala urtebete, Irureta-goiena, Zarautzko PPko zinegotzixa hii zabenian.

9 .Euskalduna naiz eta harro nago? - Bai, baina Kataluinian jaio izan banintz katalana izatiagatik egongo nintzateke harro.

10 -Zerk galerazten di-zu loa? - Lana noiz topatuko doten pentsatziak, inguruko jendian inbidixak...

11 -Joaten al zara Gaz-tetxera? - Hasieran juten ginan baina oin ez, baina ondo dao holako leku bat egotia.

12 -Gurasoek asko su-fritzen al dute zurekin? - Bastante sufritzen dabe, ze

nahiko rebeldia naiz eta gerria ematen dot.

13 _Zer da gurasoen-gandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

- Gehixen, ahizpa eta bixon-gatik edozer ingo luketela eta gitxien, guraso izatiagatik batzuetan gehixegi in-punitzen diazela.

14 -Laguntzen al duzu etxeko lanetan? Ez, nere ohia itxen dot bakarrik.

15 -Ondo pasa al dalte-ke alkoholik gabe? Bai. Alkoholakin ohitxu gera baina alkoholik gabe ere ondo pasau leike.

16 -Irakurri duzun az-ken liburua? - "Pequerias infamias", Carmen Posadas-ena.

17 .Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexu-rik gabe? - maitasuna sexu-rik gabe.

18 -Birjinitatea traba-ala bertutea? - Ez bata eta ez bestia. Bere momentua daka eta batzuei lehen eta beste batzuei beranduo ailegatzten jakue.


19 -Neska batek maite zaituela esango balizu? - Ez nintzan asustauko. Berakin hitz egingo naban eta nere jarrera azalduko nioke.

20 -Sinesten ai duzu betiko maitasunean? - Bai, ez da erreza baina possible da.



I. LIRTELIRRENA

1998ko urtarrilaren 4an, 86 urte zituela hzi zen
INAXIO KORTABITARTE MAGUREGIren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 16, arratsaldeko 19:00etan.
Joaten zaretanoi eskerrak alde zurretik.



15 ostirala

22:00 SAN ANTON
PILOTA
TXAPELKETAKO
FINALAK
Ikastolako frontoian

22:30 LOURVIER'S
STORY
Lourvier's taldearekin
Herriko Antzokian

18 larunbata

12:30 XIX. FILATELIA
ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA
Kultur Etxean
Antolatzailea: Elgoibarko
Filatelia Elkartea
Hilaren 24ra arte

19:30-22:15 ZINEA
"Ronin"

17 igandea

SAN ANTON EGUNA
11:00 MEZA NAGUSIA
Parrokian

16:30 BURUHANDI eta
ERRALDOIEN KALEJIRA

17:00 ARTAZO
BASERRIAREN ALDEKO
HERRI KIROLEN
JAIALDIA

Olaizaga Kiroldegian
Antolatzaileak: Udala,
DEBEMEN eta
Sallobente Elkaztea

19:30-22:15 ZINEA
"Ronin"

1 asteleena

11:00 HAURRENTZAKO
PARKEA
Plaza Handian (Euria
egingo balu, Kiroldegian)
12:30 ERTZANTZAREN
BANDAREN KONTZERTUA
Herriko Antzokian

16:30 HAURRENTZAKO
PARKEA
Plaza Handian (Euria
egingo balu, Kiroldegian)

19:30 ANTZERKIA
Antzezlanak: Mari Sorgin
Taldea: Taupada
Herriko Antzokian

22:15 ZINEA
"Ronin"

20 asteazkena

15:00 HERRI ESKOLAKO
HAURREN TANBORRADA
Herri Eskolan

20:30 LA UNION
ELKARTEKO BILERA
(Kirol sekzioa)
La Unión Elkartean

21 osteguna

22:15 ZINE KLUBA
Antolatzailea: Ongarri Zine
Kluba

20:30 LA UNION
ELKARTEKO BILERA
(Kirol sekzioa)
La Unión Elkartean


22 ostirala

11:00 SAN BIXENTE
EGUNeko MEZA
San Roken

20:30 ANAIARTEKO
AFARIA GARDOKI
TRIKITILARIAREKIN
San Rokeko lokal sozialean

22:15 ZINEA
"La mbeara del zorro"

11 NE A



Zuzendaria: John Frankenheimer.
Antzezleak: Robert de Niro,
Jean Reno, Stellan Skarsgard.

Ronin

Parisko taberna txiki batean mertzenario talde bat elkartzen da operazio garrantzitsu bat dela-eta. Une honetatik aurrera, oso babestua dagoen zorro bat lapurtzea izango da profesional hauen zeregin nagusia. Ez dakite nork kontratatu dituen, ezta ere zer dela-eta hartuko duen parte operazio honetan. Lapurtu behar duten zorroak zer ezkutatzen duen ere ez dakite.

11 • 1 • IR • 111

ONGARRI ZINE KLUBA

Gabonetako oporretan egindako etenaren ostean, Ongarri Zine Klubak zine emanaldiei ekingo die berri-urtarrilean. Hil honetarako sona handiko bi pelikula aukeratu dituzte.

Hilaren 21ean, osteguna, T. Kitano japoniarraren 'Hanna-BP' filmea emango dute, Estatu espainiarrean duela gutxi estreinatutakoa eta 97ko Venezia-ko zinemaldian urrezko lehoia irabazi zuena. Pelikula hau aurkezteko EGUNKARIAko zine kritikoa den Irtaki Lazkano gonbidatu dute.

Hilaren 28 eta 29rako, Ke-an Loach zuzendariaren 'Mi nombre es Joe' pelikula prestatu dute. Filme honek 98ko Valladolideko jaialdian lehen saria jaso zuen. Ohiko moduan, gaueko 22:15ean hasiko dira emanaldiak.

• Errestaurazioari buruzko oinarrizko ikastaroa

Eskuz Taldeak antolatuta, datorren otsailetik aurrera errestaurazioari buruzko oinarrizko ikastaroa hasiko da. 32 orduko iraupena izango du eta *Eskuz-ek* Pedro Muguruzako eskola zaharretan duen egoitzan emango dira klaseak arratsaldean. Irakaslea Debako Nieves Mайдagan errestauratzailea da eta altzari eta objektu zaharrak berri-tzen ikasteko teknikak landuko dira. Ikastaroan parte hartu nahi duenak 943 74 14 49 zenbakira dei dezake eguerdiko 13:00etatik 15:00etara bitartean.



• Masaiak ematen ikasteko ikastaroa

Surya belardendak ikastaroa antolatu du masaiak nola ematen diren ikasi nahi duten guztientzat. Oinarrizko maila izango du ikastaroak eta bihar, hilak 16, hasiko da eta 10 zapatuz luzatuko da. Interesa duenak izena eman dezake *Surya* belardendan. Goizeko 10:00etatik 13:00etara bitarteko ordu-tegia izango du ikastaroak.

• Helduentzako igeriketa ikastaroak

Udal Kirol Patronatuak igeriketa ikastaroak antolatu ditu helduentzat. Urtarrilaren 25ean hasiko dira eta 14 orduko iraupena izango dute. Bazkideek 5.200 pta. ordaindu beharko dituzte eta bazkideak ez direnek 6.200 pta. Izena emateko 943 74 44 15 telefonora deitu hilaren 22a baino lehen.

• Haurren tanborrada Herri Eskolan

San Sebastian Eguna delata, Herri Eskolako haurrek tanborrada antzetzuko dute urtarrilaren 20an. Arratsaldeko 15:00etan hasiko da saioa eta eskolan bertan izango da. Eskolako arduradunek guraso guztiak joatera animatu nahi dituzte.

• San Bixente Eguna

Datorren ostiralean, hilak 22, San Bixente Eguna ospatuko dute San Rokeko auzotarrek. Goizeko 11:00etan meza izango da auzoko ermitan eta iluntzeko 20:30erako anaiarteko afaria antolatu dute Gardoki trikitilariak alaituta.

T X A N D A K

FARMAZIAK

- Egunez ~~Gauez~~
16 Yudego Yudego
17 Yudego Yudego
18 Zabaleta Zabaleta
19 Etxeberria Etxeberria
 (Santa Ana kalean)
20 Escala Escala
21 Bidasolo Bidasolo
22 Etxeberria Etxeberria
23 Etxeberria Anduaga
 (Santa Ana kalean)

ESCALA: **Rekalde, 1**
Soraluze. Tel: 943 75 16 38
 ANDUAGA: **Mendarozabal, 1**
Garagarza. Tel: 943 75 61 42
 ZABALETA: **Kalebarren, 9**
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA
17 igandea Eizagirre
18 astelehena Foteru

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Takeshi Kitano
 Antzezleak: Beat Takeshi,
 Ren Osugi, Kayoko Kishimoto.

Hana-Bi (Japonia 1997)

Nishi polizia da eta ospitalean gaixorik dagoen emaztea bisitatzerako joaten da. Bertan jakiten du emaztea hilzorian dagoela eta zenbait lankide larriki zauritu dituztela. Berri txarreatik lur jota, diru laguntza eskatzen die prestamista batzuei. Baina dirua itzultzerik ez duela ikusita, banku batean lapurreta egitea erabakitzen du.

Lana

• ESKAINTZM

- Pertsona gaixoak zaindu eta etxeko lanak egiteko neska behar da. s 943 47 02 22 (gauez)
- Asteburuetan barran lan egiteko pertsona bat behar da. n. 943 74 43 46
- Mutil arduratsua behar da zenbait lan egiteko. 12. 970 672 515
- Igeltseroa behar da esperientziarekin. tr 943 12 08 63 909 71 05 91

• ESKAERM

- Etxeko lanak egin edo lokal, denda eta portalak garbituko nituzke. Esperientzia eta informeak ditut. a 943 74 38 45 (Matilde, goizez)
- Haurrak zaintzen esperientziadun neskak lan egingo luke etxeko lanetan. Barran edo jatetxean tan egiteko prest nago. tr 630 56 80 23
- Argazkilaritza ezagutzak dituen neskak lan egingo luke argazkizendaren batean laguntzaile moduan. Ir 943 74 41 75 (Chari)
- Neska elgoibartarra umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest dago orduka. tr 930 59 28 46/943 75 62 18 (Isa)
- Neska talde batek lokalak eta obra amaierako garbiketarako egingo lituzke. 930 59 28 46 943 75 62 18 (Isa)
- Urneak zainduko nituzke Mendaron edo Elgoiharren. tr 943 75 51 42 (Yoli. Goizez)

Salerosketak

• SALDU•

- Nissan Vanette saltzen da, Na-Z. Kanpinerako prestatua. Extral barne. Prezio onean. tr 943 60 45 31
- Tabako tnakina saltzen da. Merkea.v 943 74 00 38
- Renault Express 1600 diesel furgoneta salgai. Na-T, 325.000 ptair 943 74 32 83 (Marei)
- Egurrezko berogailua saltzen da. Merkea. Ferroli markakoa. tr 943 74 16 39 / 74 41 28 (Tere)
- Wolkswagen Transporter Combi SS AV furgoneta saltzen da. tr 943 74 40 87
- + Lokal komertziala saltzen da. Pedro Mugaruza etorbidea, 24-3.esk. tr 943 74 06 48
- Bi hilabeteko eneker txakur-kumeak salgai. tr 943 75 60 25

OHARRA: Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna astearen eguerdia da.

Bestelakoak

- Aurreko larunbatean, hilak 9, arratsaldeko 19:00ak eta gaueko 00:00ak bitartean, tren geltokiko aparkalekuan, ibiIgailu batek nire Peugeot 205 beltza jo zuen. Norbaitek zerhait ikusi badu, deitu tr 943 74 39 13 zenbakira (arratsaldeko 20:30etik aurrera)
- Katu siamesa galdu dut, Lepokoa darama helbidearekin. Norhaitek aurkitu badu, jo dezala Urasandira, 11. blokea, 51-3 (Vicente).
- Pultsera galdu nuen Herriko Antzokian izan zen azken kontzertuan. Familiako oroigarria da. Norbaitek atirkitu badu dei dezala. Saritu egingo da. tr 943 74 05 20 (Mila)
- # Abenduaren 2lean haur batek auto teledirijitu gorria galdu zuen Plaza Haundian. Norbaitek aurkitu badu, dei dezala tr 943 74 09 86 telefonora.
- Lepoko foulard luzea galdu nuen Errege Egunean San Roke inguruan. Artilizekoa eta zetazkoa da, urdina eta marroia. Topatu duenak dei dezala tr 943 74 17 18ra.
- Betaurreko graduatuak galdu nituen San Antolin eta Herriko Antzokiaren artean. Aurkitu badituzu deitu er 943 74 31 99ra.
- + Hatzazkalik gabeko katu pertsa oparituko ninke ondo zainduko lukeenari. Kapatua. Oso mimosna da. 'a 943 74 06 94 (13:00-18:00. M. Luisa).

Etxebizitzak

- Urasandin etxea salgai. Kanpora ematen du eta oso eguzkitsua da. ts• 943 74 29 52 (gaueko 20:00etatik aurrera)
- Pisua saltzen da, altzariekin eta berogailuarekin.v 943 74 18 20
- Lokala saltzen da Pedro Mugaruzan. 56 m2 ditu. tr 943 74 06 48
- Lokala saltzen da. Bulegoa, garajea, biltokia eta komuna ditu. tr 943 74 14 23
- Etxebizitza salgai Errosario kalean. tr 943 74 17 95
- Apartamentua Itziarren salgai edo alokatzeko daukat. Itsasora begtra, guztiz ekipatua tr 943 19 22 65

Partikularrak



- Frantseseko klaseak ematen ditut. Intentsiboak ere bai. tr 943 19 10 71 (Carolina)

Agurrak

- Zorionak izeba Anari abenduaren 22an 26 urte bete zituelako. Nadia, Nora eta familia osoaren partez.
- Zorionak Janireri abenduaren 22an urteak bete zituelako. Ikastolako DBH 2. mailako partez.
- Zorionik beroenak Ander Gerenabarrena eta Mikel Sastreri hilaren 14an eta 17an 12 urte betetzeagatik. Ikastolako 6. mailako partez.
- Zorionak Daneli etxeko guztien partez. Aurten 8 San Anton beteiko dituzul!



- Zurionak Tsaiberi abenduaren 30ean 4 urte bete zituelako. Guraso Jaione eta Mikel eta fluniliaren partez, musu haundi bat.



- Zorionak Uri hilaren 7an urteak bete zenuelako. Ahaztuta gentielakoa? Ospatuko dugu Txutxinekin. Aupa Villanual



- Zorionak Elena laugarren urtebetetzean osaba Ramon eta izeba Aliciaren partez.




- Zorionak Asier 4 urte beteko dituzulako. Ondo pasa, gure maitea, guk zurekin oso ondo pasako baitugu. Asko maite zaltzugu. Aita eta ama.

Asko maite zaltzugu. Aita eta ama.

- Zorionak Juleneri abenduaren 28an 2 urte bete zituelako. Familiaren partez.




- + Zorionak Joana Alaminori familiaren eta lagunen partez. Ondo pasa.



- + Zorionak Inigori bere lehenengo urtebetetze egunean. Familia osoaren partez, bereziki Ainboaren partez.



- Zorionak Gorkari abenduaren 24an 22 urte bete zituelako. Arreba Alaitzen eta familiaren partez.




- Zorionak Juleni abenduaren 21ean 12 urte bete zituelako. Alaitzen eta familiaren partez.

20. URTEURRENA

MULTIOPTICAS

ZERBITZU OPTIKOETAN LEHENA



Eskerrik 446
kyvo
vmmt ¹ —

MALLORCAra
bidaiatzeko
zozketaren
zenbaki saritua,

zenbakia

izan da.

BONARDI bilduma

Aukera ezazu modelo askoren artean

3.400 ^t
arrik

e ⁶ ttTh

LENTE PROGRESIBOAK

Orain, lente progresiboak ondo egokituko
zalzkizula garantizatzen dizugu

1 9.500 aurrera

Multieskaintzak

MULTIOPTICAS

60 URTEtik gora

60 urtetik gora badituzu, oso eskaintza
berezia prestatu dugu zuretzat.

Egitura + Kristala



8.700 pta.tik
aurrera



LENTILAK

Zure lentilak eta 360 ml-ko disoluzio
bakarreko 2 ontzi erostean, lentila-kaxa eta
motxila oparituko dizkizugu.

1 4.900 ^p
ta.
bakarrik



MULTIOPTICASen MULTIESKAINZAK-i esker, eskaintzarik onenak kalitate eta preziorik onenean aurkituko dituzu.
Ez bizkarrik eman aukera paregabe honi.

Eskaintza hauek 99/2/28ra arte balio dute.

Tel. 900 34 35 36
www.multiopticas.es

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59 • ELGOIBAR
Ostolaza, 7 • Tel: 943 19 21 92 • DEBA

HeRRiko AntzokiAn

Lourvier' Story



Javier Merino
Lourdes Bedia
Oscar Terol

Kike Diaz de Rada

[Gaztelaniaz]

Ordúa: Gaueko 22:30ean

eGUINA:
urteARRILAK 15



Kultura Saia